



## ❖ BERTSOLATA Biharko saiorako sarrerak salgai

Bihar bertso saioa izango da frontoian 22:00etatik aurrera. Bertan izango dira Andoi Egaña, Unai Iturriaga, Maialen Lujanbio, Amets Arzallus, Igor Elortza eta Iñaki Zelaia. Sarrerak salgai daude 5 eurotan Tripontzin, Oindin, Kitton eta Aralarren. ||

## ❖ ONGINTZA Batzarde bilera gaur

Ongintza Batzardeak bilera du gaur 13:30etan. Bertan, beste zenbait punturen artean, 2006ko etxebizitza sozia- len adjudikazioaz hitz egingo dute. ||

## ❖ ERREGE KABALGATA Bilera Biterin Kabalgatari buruz

Errege Kabalgatako Komi- sioak bilera antolatu du gaur Biterin 20:00etan, urtarilaren 5eko ekitaldia antolatzeko. Herriar guztiei dei egin die bertara azaltzeko. ||

## ❖ THE SOLANOS 'The Solanos' bihar Haida tabernan

Bihar *The Solanos* taldearen emanaldia izango da Haida tabernan, gaueko 22:00etan. ||

## ❖ SEHASKA Egutegia saltzen azokan

Gaur Sehaskako egutegia sal- tzen ariko dira Urbieta kalean 17:00etatik 19:00etara. ||

## ❖ MUSA Partidak Elur Txorin

Gaur Elur Txorin mus partidak izango dira: Carlos-Txarri/Al- varo-Pablo; Joxe-Manolo/Ge- rardo-Joshan; Iturri- za- Esnal/Pavon-Pavon; Galan-

## Plenoak 2006ko udal aurrekontuak onartu ditu, hirukoa eta PSE-EEren aldeko botoekin

PP abstenitu egin da. 28.834.000 euroko aurrekontua da eta hirukoak parte hartze haundia izan dutela nabarmendu du. BHK dio aurrekontuak ez direla demokratikoak.

ATZO onartu zuen Plenoak 2006ko aurrekontu proiektua, 28.834.000 euro aurrikusten dituen. Udalari berari dago- kiona 24.888.000 euro dira; Ongintza Patronatuari 5.825.000 euro dagozkie; eta Kirol Pa- tronatuari 2.310.000 euro. On- gintza Patronatuak eta Kirol Patronatuak parte bat udaletik jasotzen dute eta beste parte bat berak gestionatzen dute; hortik, Udalaren aurrekontu osoa, 28.834.000 euro izatea. Hiruko gobernuak (EA, EAJ eta EBK) eta PSE-EEK aldeko botoa eman zuten eta PP alderdia abstenitu egin zen.

### Inbertsio nagusiak

Zaharren Egoitza haunditzea, Antziola, Lizeaga, Arrigoain- pea eta Agustina-Zinkoenea inguruko urbanizazioak ber- ritzea eta Goiz Eguzki parkea berritzea izango dira aurtengo inbertsio nagusienetako ba- tzuk. Horrez gain, aire libreko igerilekuen obren jarraipena eta ingurugiroan inbertituko dituzten 166.000 euroak ere azpimarratu ditu hirukoak, onartu berri dituzten aurre- kontuetan. Inbertsioetan 6 miloi euro aurrikusten dituzte aurrekontuek, Udal gober- nuaren hitzetan, "diru sarrera propioen gestio onari eta Di- putazio eta Eusko Jaurlari- tzarekin Udal honek dituen harreman onari eskerrak".

### PSE-EEren lau emendakin

Gobernu taldeak PSE-EE al- derdiak egindako lau emen- dakin sartu ditu 2006ko au- rrekontuetan. Lehenengoa da Karabelen Renfeko lurretan egingo dituzten aparkamen- tuen bigarren fasea datorren urterako aurreratzea; bigarre- na, herrian energia berrizta-



Atzoko plenoan, 2006ko aurrekontuen aldeko bozketan.

Inbertsioen atalean biltzen ditu zaharren egoitza haunditzea, Antziola, Lizeaga, Arrigoainpea eta Agustina-Zinkoenea inguruan urbanizazioa berritzea eta Goiz Eguzki parkea berritzea

garri instalazio gehiago jar- tzeke aukera ikusteko azter- keta bat egitea; hirugarrena, jendearen harrerarako lei- hatila bakarra jarri litekeen ikusteko azterketa bat egitea; eta laugarrena, lurra erosteko, 300.000 euroko partida berri bat sortzea, babes ofizialeko etxeak egin ahal izateko. PSE- EEko ordezkariak esan dute aurrekontu hauek ez direla berak erabat nahiko lituzke- ten bezalakoak, baina, nahiko aldekoak direla eta "konfian- tza boto bat" emango diela. Lau emendakinak onartu izana azpimarratu zuten PSE- EEko ordezkariak eta aldeko botoa eman diete datorren urteko aurrekontuei.

Honen inguruan, Joxan Rekondo alkateak azpimarra- tu du "aurrekontuek izan

duten kontsentsu zabala". PSE-EEren negoziatorako ja- rrera irekia nabarmendu du eta proiektuan auzo elkarte- en parte hartzea izan dela esan du eta beren eskaera asko biltzen dituela testuak.

### PP abstenitu

PP alderdiko kide bat azaldu zen plenora eta abstenitu egin zen, 2006ko aurrekontuen bo- tazioan. Bere hitzetan, berak egindako bi emendakin sartu zituzte aurrekontuetan: bata etxebizitza babestuek egiteko lurra erostekoa eta bestea koo- perazio proiektuetarako parti- den kontrol zorrotzagoa egite- ko modua aztertzea. Horrez gain, badira beste zenbait emendakin aurrekontuetan sartu ez direnak eta PP horre- gatik abstenitu da.

### Bildu Hernani kontra

Bildu Hernani plataformak osoko zuzenketa aurkeztu zien aurrekontuei. Atzo pren- tsaurrean azaldu zuten ez dira aurrekontu demokratiko- ak "ez dutelako inorekin kon- tatu aurrekontuak egiteko, ez herritarrekin eta ez BHKekin". Besteak beste salatu dute Gas Hernani saldu den modua, Akarregin ere bi udal pabiloi saldu izana eta igerilekuak egi- ten hastea "nahiz eta lehenta- suna izan ez, eta hasierako aurrekontua bikoiztu". Horrez gain diote, aurrekontuak puz- tu egin dituela udal gobernuak "sarrera batzuk bete ez arren". Politikarien soldata eta dietetan 360.000 eurotik gora gastatzen direla ere sala- tu du BHK eta baita aurrekon- tuak onartzeko Plenoa goize- ko 09:30etan jarri izana ere "herritarrek ordu horretan joan ezin direlako". ||

(Aurrekontuei buruzko erreportaje zabalagoa, larunbatean)

**HERNANI HIZKUNTZAK**  
(Gure Ingelesetxea)

Lehen hiru hilabeteko azken klase eguna, abenduak 23, ostirala. Berrito, klaseen hasiera, urtarriak 9, astelehena.

ZORIONAK eta urte berri on!

MATRIKULA ZABALIK

Deitu Alan/Joe: 943 33 11 08  
KALE NAGUSIA 41, 1.



☎ **TELEFONOAK** 1 **Taxiak:** 943 550093 1 **Udaltzaingoa:** 943 333288 1 **DYA:** 943 464622  
1 **Autobusak:** 943 556662 1 **Anbulatorioa:** 943 006666 1 **Jokalarri anonimoak:** 943 331103  
1 **Alkoholiko anonimoak:** 943 331103 1 **FARMAZIAK** 1 **Egunez:** **Correa** Perkaiztegi 8 - 943 336022  
1 **Gauzez:** **Chucila** Kardaberaz 48 - 943 551793

## Gazte Asanblada eskiatzera

GAZTE Asanbladak eskiatzera irteera antolatu du urtarri-laren 7an, Luz-Ardiden-era. Sarrerak 30 euro balio du (*forfait* eta autobusa) eta salgai daude Tripontzi, Goiz Argi eta Garinen, urtarri-laren 2ra arte. Janaria norberak eraman behar du eta materialik ez duenak aukera izango du alokatzeko. Talde honek gazte guztiak animatu ditu irtee-

ran parte hartzea eta hilaren 26an egingo den bilerara azaltzeko, 19:30etan Biterin. Datozen ekintzetarako ardurak zehaztuko dira bileran.

**Aitzol eta Roberto irabazle**  
Larunbatean mus txapelketa izan zen herriko hainbat tabernatan. Hogei bikote aurkeztu ziren eta Aitzol eta Roberto izan ziren irabazle. ■

## Olentzero baserrietara

URTERO bezala *Olentzeroa baserriz baserri* ibiliko da larunbatean, Osiñaga auzoan barrena. Kantariak, bertsolariak eta soinu joleak joango dira. Antolatzaileek bazkalostean egin dute zita, Gudari-Plazan, 15:00etan; herriar guztiak animatu dituzte bertan parte hartzera. ■

## ESKOLA KIROLA - ASTEBURUKO EMAITZAK



| SASKIBALOIA |                        |       | Benj. 3.          | Elizatxo A-Langile B | 8-4   | ERRUGBIA - Benj. 4. Maila |     |
|-------------|------------------------|-------|-------------------|----------------------|-------|---------------------------|-----|
| Aleb. Mut.  | Elizatxo B-Elizatxo C  | 14-64 | Benj. 3.          | Langile A-Elizatxo B | 1-7   | Elizatxo A- Urumea C      | 3-0 |
| Aleb. Nes.  | Eliz/Urum-Ibai A       | 12-46 | Benj. 3.          | Urumea A-Langile D   | 12-4  | Langile C-Elizatxo C      | 1-1 |
| Aleb. Nes.  | Urumea-Zurria D        | 20-33 | <b>ESKUPELOTA</b> |                      |       | Langile A-Elizatxo B      | 1-0 |
| Aleb. Mut.  | Urumea C-Urumea B      | 18-19 | Aleb. Mut.        | Langile B-Langile E  | 4-5   | Langile C-Langile D       | 2-0 |
| Aleb. Mut.  | Elizatxo A-Inmaculada  | 87-10 | Aleb. Mut.        | Elizatxo A-Langile D | 2-5   | Elizatxo B-Elizatxo C     | 0-1 |
| BOLEIBOLA   |                        |       | Aleb. Mut.        | Urumea C-Langile A   | 0-5   | Langile C-Urumea D        | 3-1 |
| Kad. Nes.   | Inmaculada-Sto Tomas   | 0-3   | Aleb. Mut.        | Langile C-Elizatxo B | 0-5   | Langile A-Langile E       | 3-2 |
| Kad. Nes.   | Langile-Presentacion   | 3-0   | Aleb. Mut.        | Urumea B-Urumea A    | 3-5   | Langile E-Langile D       | 0-4 |
| Aleb. Nes.  | Langile B-Elizatxo     | 2-0   | <b>PALETA</b>     |                      |       | Urumea C- Urumea D        | 0-3 |
| Kad. Nes.   | Lizeotarrak-Inmaculada | 2-3   | Aleb. Nes.        | Urumea E-Urumea C    | 14-18 | Langile B-Langile E       | 1-4 |
| FUTBOLA     |                        |       | Aleb. Nes.        | Elizatxo - Langile D | 18-6  | Langile D-Elizatxo C      | 1-2 |
| Inf. Nes.   | Langile-Antigua Luberr | 0-1   | Aleb. Nes.        | Langile A-Langile C  | 18-15 | Elizatxo B- Urumea D      | 1-3 |
| Inf. Nes.   | Urumea-Euskalduna      | 0-5   | Aleb. Nes.        | Urumea D-Urumea B    | 18-10 | Langile B-Urumea D        | 1-4 |
| Benj. 3.    | Urumea B-Langile C     | 6-8   | Aleb. Nes.        | Urumea F-Urumea A    | 18-4  | Elizatxo A-Elizatxo C     | 1-4 |
|             |                        |       |                   |                      |       | Langile A- Urumea C       | 3-2 |



Atal honen babesle:

HERNANIKO UDAL KIROL PATRONATUA



### 'Balantxa' bideo eta liburudenda ireki dute Antzian.

Antzianako 7garren zenbakian *Balantxa* izeneko denda zabaldu berri dute, eta Maider eta Iñigo izango dira dendariak. Bertan DVDak izango dira 24 ordutan eta horretaz gain liburuak, prentsa, opariak eta goxokiak dituzte salgai. Euskal katalogoko produktu guztiak bertan dituzue aukeran eta Kukuxumuxukoak... ■

### ❖ BERDINTASUN SAILA

#### Emakumeen historiari buruzko beka

Bihar amaituko da Udalak Hernaniko emakumeen historiaren inguruan ateratako bekarako lanak aurkezteko epea. ■

### ❖ UDALA

#### Esker onak Agustinetako obren inguruan

Udalak ohar bat bidali du Kronikara Agustinetako obratan aritu diren langile eta Udaltzainei eskerrak emateko, egindako langatik. Gidariei ere eskerrak eman dizkie errepide mozketen aurrean izadako pazientziagatik. Udalak adierazi du "mozketa horiek ezinbestekoak" izan direla obrak gauzatu ahal izateko. ■

### ❖ EITB

#### ETB1ko 'Mihiluze' lehiaketan izena eman

Kike Amonarizek gidatuta *Mihiluze* izeneko lehiaketa jarriko dute martxan ETB1en eta lehiakide bila dabilta. 18 urtetik gorako hirukoteak behar dituzte "umoretsuak, berritsuak eta drogoak". Izena emateko deitu 943 011784 zenbakira edo [mihiluze@eitb.com](mailto:mihiluze@eitb.com)-era idatzi. ■

### ❖ IRAGARKI MERKEAK ❖

**Kotxea salgai.** Peugeot 206. 115.000 km ditu eta 1999koa da. **Prezioa 4000 €.** Interesatuak deitu: 618 816 960

25 urteko **Administraria** lan bila. Deitu: 660 580 862

**Urrezko katea** galdu nuen, larunbatean, Hernaniko kaxkoan. Familiako errekuerdia da. Norbaitek aurkitu badu, deitu: 943 552767

**Arotz profesionalak** lan txikiak egingo lituzke. Deitu: 656 78 64 15

**Iñigo Royo Masajista.** Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta bertebrala, reflexologia, auriculoterapia,...: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Sta Barbara 42).

**Etxe bat salgai** Gudarien plazan. 50 m2 ditu. Interesatuak deitu: 679 10 75 06 (Arratsaldeko 13:30etatik 15:30etara)

**BALANTXA**

dvd 24 ordu - prentsa - liburuak - opariak - txutxeak

ANTZIOLA 7

☎ 943 55 35 58

